

LAUTARO'REN AZIERA (Pablo Neruda)

Pablo Neruda, Parral-Txile'n jaio zan 1904'an. Eta ziar asko, gaztelar poesian idazten dabenen artean, bereau dogu gaien irakurten dana. Bere olerkiak, eta batez be «Maitasunezko 20 poema ta abesti etsi bat, eun millaka ta millaka argitaratu ta zabaldu dira or-emenka. «Asteko odaka», «Buzagiaren bertsoak» eta «Maitasunezko eun amalauko», ederrrenetarikoak ditugu, gaztelarak izan ditun eder-gairik trukunenez jantziak.

Gezi mee bat zan Lautaro.

Malgu ta oztiñ zan gure aita.
Aren len-adiña ixilla bakarrik.
Aren mutil-zaroa, nagusitza.
Aren gaztaroa, aize zuzendua.
Aztamakil luze lez zan gertatua.

Oiñak ur-jauzietan oitu zitun.
Arantzetan ezi eban burua.
Guanakuaren demak osatu.
Edurraren obi-zuloetan bizi.
Arranoen jatekoa kirikatu.
Arkaitzaren ezkutua atzamartu.
Suaren erbatzak poz-erazi.
Udabarri otzez iñudetu zan.
Ifernu-zintzurretan kiskali.
Egazti anker artean eizari izan.
Bere eskuak garaikundez gorritu.
Gau-biotzaren erasoak irakurri.
Kirats-amiltegiak zurkaiztu.
Abiada egin zan, ots-otseko argi.

Udazkenaren belantzak artu zitun.

Obi ikus-eziñetan lanari ekin.
Edur-zuloko izaretan lo egin.
Gezien izaeragaz badin etsi.
Baso-odola bideetan edan.
Olatuen altxorra arrapatu.
Jaingo zurbil lez, zemai egin zan.
Bere erriko eskaratz bakotxean jan.
Oñestuaren agaka ikasi.
Banandutako errautsak usaindatu.
Odola itzali arte burrukatu.

Orduantxe bakarrik, bere erri-gai.

Igotz'ek euskeraz

ENTZUN

Leon Felipe'rena

Amets egin nuen... Amets!
Ez naiz ipuin bat.
Urrutiagotik nator...
Naiz ta ametsetik nator!
Ta, amets egitea nai, nai, nai, nai, izatea dala
[diot...]
Ispillutik iges egin nai,
matazatik irten nai,
ipuinaren gozakerietatik aldegin nai,
luzatu nai, zabaldu nai...